

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

8.050

111/2001 FORU DEKRETUA, abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren testu bateratua onetsi eta atxikipen eta moduluen taula aldatzen da.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauak arautzen du. Xedapen orokor hau hainbat foru dekretuk garatu zuten. Horien artean aipagarriak dira, besteak beste:

Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua, zeinaren bitartez kapital etekinetan eta ondare irabazi jakin batzuetan atxikipenak eta sarre-rak kontura egitera beharturik dauden pertsona eta erakundeek bete beharreko arautegia onartzen den; abenduaren 14ko 147/1999 Foru Dekretua, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera lanaren etekinen gainean egin behar diren konturako sarre-rak eta atxikipenak arautzen ditue-na; martxoaren 16ko 31/1999 Foru Dekretua, ekonomia jardueren etekina (hain zuzen ere, abenduaren 16ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/1998 Foru Arauan jasotako ekonomia jar-dueren etekina) zehazteko arauzko garapena onesten duena; ekai-naren 29ko 86/1999 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gai-neko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren zati bat garatzen duena, eta urtarrilaren 30eko 6/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 16ko 35/1998 Foru Araua erregelamenduz garatzen duena, zerga horren aitortpena aur-kezteko betebeharraren inguruan.

Hainbat foru dekretu egoteak zentzua izan zuen bere garaian, beharrezkoa baitzen gai batzuk berehala arautzea. Une hauetan, berriz, testu arautzaile bakarra izatea da zuzenena.

Aldi berean, laneko atxikipenen taula eta zenbatespen objekti-boaren metodoko zeinu, indize edo moduluen kopurua aldatu dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak gai horri buruz emandako txoste-na eta Aholku Batzordeak emandakoa ikusi ditugu.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak pro-posatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren,.

XEDATU DUT:

I. TITULUA

ERRENTA SALBUETSIAK

1. artikulua.- Langilea kaleratzeagatik edo lan-uzteagatik kalte ordainak.

Zergaren gaineko Foru Arauaren 9. artikuluko d) letran aurreiku-sitako salbuespena jasotzeko, behar-beharrezkoa da langileak bene-tan enpresarekin loturarik ez izatea. Kontrakoa frogatzen ez bada, lotura ez dela eten joko da, baldin kaleratzea edo lan-uztea gertatu eta hurrengo hiru urteetan, langileak berriz ere bere zerbitzuak ema-ten badizkio enpresa berari edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera hari loturik dagoen beste enpresa bati, baldin eta, lotura hori bazkide-sozietate erlazio-aren arabera definitzen denean, partaidetza %25 edo gehiago bada, edo %5, bigarren mailako espainiar balioen merkatu ofizialetan nego-ziatutako balioak izatekotan.

2. artikulua.- Literatura, arte edo zientzia sari garrantzitsuen salbuespena.

1. Zergaren gaineko Foru Arauaren 9. artikuluko h) letran zehaz-tutako salbuespenaren ondorioetarako, literatura, arte edo zientzia sari garrantzitsutzat joko da lagun bati edo gehiagori ondasunak edo eskubideak ematea, kontraprestaziorik gabe, sari edo esker on gisa literatura, arte edo zientzia lanen balioagatik, bai eta sarituek arlo horietan egindako lanaren merituagatik.

2. Sari-emaeleak ezingo du saritutako obra (bat edo gehiago izan) ekonomikoki ustiatu, edo hura ustiatzeko interesik izan.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

8.050

DECRETO FORAL 111/2001, del Consejo de Diputados de 18 de diciembre, que aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y modifica la tabla de retenciones y módulos.

El Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se encuen-tra regulado en la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre. Esta disposición general fue desarrollada por varios Decretos Forales, entre los que se pueden citar los siguientes:

Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, que aprueba la normati-va a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar reten-ciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales; Decreto Foral 147/1999, de 14 de diciem-bre, que regula las retenciones e ingresos a cuenta a realizar sobre los rendimientos de trabajo a partir de 1 de enero de 2000; Decreto Foral 31/1999, de 16 de marzo, que aprueba el desarrollo regla-mentario de la determinación del rendimiento de las actividades eco-nómicas de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas; Decreto Foral 86/1999, de 29 de junio, que desarrolla parcialmente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y Decreto Foral 6/2001, de 30 de enero, que desarrolla reglamenta-riamente la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en relación con la obligación de presentar declaración por dicho Impuesto.

La existencia de varios Decretos Forales tuvo en su momento su sentido, debido a la necesidad de que algunas materias se regu-lasen rápidamente. Sin embargo, en estos momentos lo más correc-to es disponer de un único texto reglamentario.

Al mismo tiempo se procede a modificar la tabla de retenciones de trabajo y la cuantía de los signos índices o módulos del método de estimación objetiva.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada el día de hoy,.

DISPONGO:

TÍTULO I

RENTAS EXENTAS

Artículo 1.- Indemnizaciones por despido o cese del traba-jador.

El disfrute de la exención prevista en la letra d) del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto quedará condicionado a la real y efec-tiva desvinculación del trabajador con la empresa. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que no se da dicha desvinculación cuando en los tres años siguientes al despido o cese, el trabajador vuelva a pre-sutar servicios a la misma empresa o a otra empresa vinculada a aqué-lla en los términos previstos en el artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, siempre que en el caso en que la vin-culación se defina en función de la relación socio-sociedad la parti-cipación sea igual o superior al 25% o al 5%, si se trata de valores negociados en mercados secundarios oficiales de valores españoles.

Artículo 2.- Exención de premios literarios, artísticos o cien-tíficos relevantes.

1. A efectos de la exención prevista en la letra h) del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto, tendrá la consideración de premio literario, artístico o científico relevante la concesión de bienes o dere-chos a una o varias personas, sin contraprestación, en recompensa o reconocimiento al valor de obras literarias, artísticas o científicas, así como al mérito de su actividad o labor, en general, en tales materias.

2. El concedente del premio no podrá realizar o estar interesa-do en la explotación económica de la obra u obras premiadas.

Halaber, sariak ezin du eskatu edo berekin ekarri, inola ere, lan sarituaren edo sarituen gaineko jabetza eskubideen (jabetza intelektualetik edo industrialetik eratorriak barne) murrizketa edo eskualdaztea.

Baldintza hau ez da urratutzat joko lana publikoki, mozkina ateratzeko helbururik gabe eta gehienez sei hilabeteko denboraldian zabalteagatik.

3. Edozein kasutan, sariaren deialdiaren aurretik egindako lanak edo gauzatutako ekintzak hartuko dira aintzakotzat, saria ematera-koan.

Ez dira sari salbuetsitatzat joko goiko 1. atalean zehaztutako gaiet loturiko obra edo lanak egin aurretiko edo egin bitarteko finantziatziora zuzendutako bekak, laguntzak eta kopuruak, oro har.

4. Deialdiak ondoko baldintza hauek bete behar ditu:

a) Lehiakideei mugarik ez jartzea sariaren izaerari berari ez dagozkion arrazoiengatik.

b) Sariaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), deialdia egiten duen autonomia erkidegoaren probintzietako baten aldizkari ofizialean jakinarazi behar da.

Salbuespena eskuratu ahal izateko, atzerrian deitutako edo nazioarteko erakundeek deitutako sariak goiko a) letran xedatutako baldintza bete beharko dute, eta sariaren eta haren publizitatearen garrantzia frogatu.

5. Salbuespena Zerga Administrazioak onartu behar du. Adierazpen hori hauek eskatu behar dute, agiri egokiekin:

a) Sarirako deialdia egin duen pertsonak edo erakundeak, oro har.

b) Pertsona sarituak, Lurralde Historikotik kanpo deitutako sarien kasuan.

Eskaera sari-ematearen aurretik egin behar da, edo, goiko b) letraren kasuan, saria lortu den ekitaldiko aitortpenarako arauzko denboraldia hasi baino lehen.

Espedientea ebazteko, beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu ahal izango dira.

Aitortpenak geroko deialdietarako ere balio izango du, espedientea eragin zuen deialdiaren baldintzak aldatzen ez diren artean.

Salbuespen aitortpena beste zerga administrazio batek egin duenean, eragina izango du lurralde historiko horretan.

6. Zerga Administrazioak saria salbuetsita dagoela adierazi duenean, goiko 5. atalean zehazten diren pertsonak hau jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari, sari-ematearen hurrengo hilabetean: sari-ematearen eguna, jasotako saria eta saria irabazi dutenen identifikazio-datuak.

Salbuespena jadanik salbuetsitatzat hartutako sarien geroko deialdiei aplikatzen jarraitu ahal izateko, nahikoa izango da aurreko paragrafoan zehaztutako jakinarazpena egitea, horrekin batera sariaren deialdiaren oinarrien ale bat aurkeztea, bai eta, hala dagokionean, artikuluko honetako 4. idatz zatiko b) letran zehazten den dokumentazioa ere.

3. artikulua.- Kirolarientzako diruzko laguntzen salbuespena.

Zergaren gaineko Foru Arauaren 9. artikuluko ñ) letran xedatutakoaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira, urtean 30.050,61 euroko mugarekin, ondoren zehazten diren baldintzetariko baten bat betetzen duten kirol prestakuntza eta teknifikaziorako diru laguntzak:

a) Onuradunek, aplikagarri den legeriaren arabera, goi mailako kirolariak direla egiaztatzea.

b) Kirolaren arloko erakunde eskudunek ordainduak izatea, zuzenean edo zeharka.

4. artikulua.- Bake misioetan parte hartzeagatik jasotako izaera publikoko ohiz kanpoko haborokinen salbuespena.

1. Zergaren gaineko Foru Arauko 9. artikuluko o) letran araututakoaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira nazioarteko bake misioetako kideei ordaindutako izaera publikoko kopuru hauek:

En particular, el premio no podrá implicar ni exigir la cesión o limitación de los derechos de propiedad sobre la obra u obras premiadas, incluidos los derivados de la propiedad intelectual o industrial.

No se considerará incumplido este requisito por la mera divulgación pública de la obra, sin finalidad lucrativa y por un período de tiempo no superior a seis meses.

3. En todo caso, el premio deberá concederse respecto de obras ejecutadas o actividades desarrolladas con anterioridad a su convocatoria.

No tendrán la consideración de premios exentos las becas, ayudas y, en general, las cantidades destinadas a la financiación previa o simultánea de obras o trabajos relativos a las materias citadas en el apartado 1 anterior.

4. La convocatoria deberá reunir los siguientes requisitos:

a) No establecer limitación alguna respecto a los concursantes por razones ajenas a la propia esencia del premio.

b) Que su anuncio se haga público en el Boletín Oficial del Estado, de la Comunidad Autónoma convocante o de alguno de los Territorios Históricos.

Para acceder a la exención, los premios que se convoquen en el extranjero o por Organizaciones Internacionales tendrán que cumplir el requisito contemplado en la letra a) anterior y además acreditar la relevancia del premio y su publicidad.

5. La exención deberá ser declarada por la Administración tributaria. Esta declaración deberá ser solicitada, con aportación de la documentación pertinente, por:

a) La persona o entidad convocante del premio, con carácter general.

b) La persona premiada, cuando se trate de premios convocados fuera del Territorio Histórico.

La solicitud deberá efectuarse con carácter previo a la concesión del premio o, en el supuesto de la letra b) anterior, antes del inicio del período reglamentario de declaración del ejercicio en que se hubiera obtenido.

Para la resolución del expediente podrán solicitarse los informes que se consideren oportunos.

La declaración tendrá validez para sucesivas convocatorias siempre que no se modifiquen los términos de aquella que motivó el expediente.

Cuando la declaración de exención haya sido realizada por otra Administración tributaria, la misma tendrá efectos en este Territorio Histórico.

6. Cuando la Administración tributaria haya declarado la exención del premio, las personas a que se refiere el apartado 5 anterior, vendrán obligadas a comunicar a la Administración tributaria, dentro del mes siguiente al de concesión, la fecha de ésta, el premio concedido y los datos identificadores de quienes hayan resultado beneficiados por el mismo.

Para poder seguir aplicando la exención en sucesivas convocatorias de premios ya declarados exentos, bastará que se formule la comunicación a que se refiere el párrafo anterior, acompañando a la misma un ejemplar de las bases de la convocatoria del premio, así como, en su caso, la documentación a que se refiere la letra b) del apartado 4 de este artículo.

Artículo 3.- Exención de las ayudas de contenido económico a deportistas.

A efectos de lo previsto en la letra ñ) del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentas, con el límite de 30.050,61 euros anuales, las ayudas económicas de formación y tecnificación deportiva que cumplan alguno de los siguientes requisitos:

a) Que sus beneficiarios tengan reconocida la condición de deportistas de alto nivel, conforme a la legislación que resulte de aplicación.

b) Que sean financiadas, directa o indirectamente, por las Instituciones competentes en materia de Deportes.

Artículo 4.- Exención de las gratificaciones extraordinarias de carácter público percibidas por la participación en misiones de paz.

1. A efectos de lo previsto en la letra o) del artículo 9 de la Norma Foral del Impuesto, estarán exentas las cantidades de carácter público satisfechas a los miembros de misiones internacionales de paz, por los siguientes motivos:

a) Nazioarteko bake misioa gauzatzeari dagozkion ohiz kanpo-ko haborokinak, edozein motatakoak direla ere.

b) Nazioarteko bake misioan jasandako kalte fisikoak edo psiki-koak direla eta emandako kalte ordainak edo prestazioak.

2. Salbuespen honen aplikazioaren ondorioetarako, nazioarteko bake misioen parean jarriko dira nazioarteko izaera duten misio humanitarioak.

5. artikulua.- Atzerrian egindako lanengatik jasotako lanen etekinatarako salbuespena:

1. Zergaren gaineko Foru Arauko 9.p) artikuluan ezarritakoaren arabera, atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinak Zergatik salbuetsita egongo dira, honako baldintza hauek betetz gero:

1. Lan horiek egoitza Espainian ez duten enpresa edo erakundeentzat, edo egoitza atzerrian duen establezimendu iraunkor baten- ztat egitea.

2. Lanak egiten diren lurraldean, izaera bereko edo antzeko iza-erako zerga aplikatzea, eta lurralde hori arauen arabera paradisu fis- kaltzat jotzen diren lurralde edo herrialdeen artean ez egotea.

2. Salbuespena gehienez ere urteko 60.101,21 eurokoa izango da.

3. Atzerrira bidalitako zergadunentzat, salbuespen hau ez da bate- ragarria izango foru dekretu honetako 6.A.3.b) artikuluan zehaztuta- ko tributazioetik kanpo utzitako soberakinaren erregimenarekin, zenba- tekoa edozein izanik ere. Zergadunak hala nahi izanez gero, salbuespen honen orde zoberakinaren erregimena aplikatzeko eska dezake.

II. TITULUA

ERRENTAREN DETERMINAZIOA

I. KAPITULUA

LANAREN ETEKINAK

6. artikulua.- Lokomozio gastuetarako eta ohiko mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopuruak eta dietak.

A.- Arau orokorrak:

1. Lanaren etekintzat hartuko dira bidaia gastuetarako dietak eta diru kopuruak, lokomozio gastuetarakoak eta artikulua honetan adie- razitako baldintza eta mugak betetzen dituzten ostalaritzako esta- blezimenduetako mantenu eta egonaldi gastuetarakoak izan ezik.

2. Lokomozio gastuetarako diru kopurua.

Karga salbuespena izango dute enpresak edo enplegu-emaile- ak langilearen lokomozio gastuak berdintzeko zuzentzen dituen kopu- ruek, langilea, bere lana egiteko, fabrikatik, lantegitik, bulegotik edo lantokitik kanpora joaten denean, hurrengo baldintza eta zenbate- koetan:

a) Langileak garraio publikoa erabiltzen duenean, fakturaren edo agiri baliokide baten bitartez egiaztatzen den gastuaren zenbatekoa.

b) Bestela, ibilitako kilometro bakoitzeko 0,20 euro zenbatzeak ematen duen kopurua (desplazamenduaren benetakotasuna egiaz- tatu behar da), gehi bidesariko eta aparkalekuko gastuak (horiek ere egiaztatu behar dira).

3. Mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopurua.

Karga salbuespena izango dute enpresak edo enplegu-emaile- ak jatetxeetako, hoteletako eta bestelako ostalaritza establezimen- duetako mantenu eta egonaldi gastuak berdintzeko zuzentzen dituen kopuruek, gastu horiek hartzailearen lantokia edota bizitokia dagoen udalerritik kanpo sortu direnean.

Hurrengo b) letran araututako kasuetan izan ezik, desplazatu eta bederatz hila bete baino gehiagoko egonaldi etengabea denean, diru kopuru horiek ez dute karga salbuespenik izango. Ondorio horieta- rako, ez da deskontatuko lantoki aldaketarik eragiten ez duten opor, gaixotasun edo bestelako egoeretako denbora.

a) Ondoren azaltzen direnak hartuko dira, bakar-bakarrik, hotel, jatetxe eta bestelako ostalaritzako establezimenduetako ohiko man- tenu eta egonaldi gastuetarako diru kopurutzat:

1. Hartzailearen ohiko lantokia edota bizilekua dagoen udalerriti- k kanpo igaro bada gaua:

a) Las gratificaciones extraordinarias de cualquier naturaleza que se correspondan con el desempeño de la misión internacional de paz.

b) Las indemnizaciones o prestaciones satisfechas por los daños físicos o psíquicos que se hubieran sufrido durante la misión inter- nacional de paz.

2. A efectos de la aplicación de esta exención se equiparán a las misiones internacionales de paz, las misiones humanitarias que tengan carácter internacional.

Artículo 5.- Exención para los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos realizados en el extranjero.

1. Estarán exentos del Impuesto, de acuerdo a lo previsto en el artículo 9.p) de la Norma Foral del Impuesto, los rendimientos del tra- bajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extran- jero, cuando concurren los siguientes requisitos:

1º. Que dichos trabajos se realicen para una empresa o entidad no residente en España o un establecimiento permanente radicado en el extranjero.

2º. Que en el territorio en que se realicen los trabajos se aplique un impuesto de naturaleza idéntica o análoga a la de este Impuesto y no se trate de un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

2. La exención tendrá un límite máximo de 60.101,21 euros anua- les.

3. La presente exención será incompatible, para los contribu- yentes destinados en el extranjero, con el régimen de excesos exclu- dos de tributación previsto en el artículo 6.A.3.b) del presente Decreto Foral cualquiera que sea su importe. El contribuyente podrá optar por la aplicación del régimen de excesos en sustitución de esta exención.

TÍTULO II

DETERMINACIÓN DE LA RENTA

CAPÍTULO I

RENDIMIENTOS DEL TRABAJO

Artículo 6.- Dietas y asignaciones para gastos de locomoción y gastos normales de manutención y estancia.

A.- Reglas generales:

1. Se considerarán rendimientos del trabajo las dietas y asigna- ciones para gastos de viaje, excepto los de locomoción y los nor- males de manutención y estancia en establecimientos de hostele- ría que cumplan los requisitos y límites señalados en este artículo.

2. Asignación para gastos de locomoción.

Se exceptúan de gravamen las cantidades destinadas por la empresa o empleador a compensar los gastos de locomoción del empleado o trabajador que se desplace fuera de la fábrica, taller, ofi- cina o centro de trabajo, para realizar su trabajo en lugar distinto, en las siguientes condiciones e importes:

a) Cuando el empleado o trabajador utilice medios de transpor- te público, el importe del gasto que se justifique mediante factura o documento equivalente.

b) En otro caso, la cantidad que resulte de computar 0,20 euros por kilómetro recorrido, siempre que se justifique la realidad del des- plazamiento, más los gastos que se justifiquen de peaje y aparcamiento.

3. Asignaciones para gastos de manutención y estancia.

Se exceptúan de gravamen las cantidades destinadas por la empresa o empleador a compensar los gastos normales de manu- tención y estancia en restaurantes, hoteles y demás establecimientos de hostelería, devengadas por gastos en municipio distinto del lugar del trabajo habitual del perceptor y del que constituya su residencia.

Salvo en los casos previstos en la letra b) siguiente, cuando se trate de desplazamiento y permanencia por un período continuado superior a nueve meses, no se exceptuarán de gravamen dichas asig- naciones. A estos efectos, no se descontará el tiempo de vacacion- es, enfermedad u otras circunstancias que no impliquen alteración del destino.

a) Se considerará como asignaciones para gastos normales de manutención y estancia en hoteles, restaurantes y demás estableci- mientos de hostelería, exclusivamente las siguientes:

1º. Cuando se haya pernoctado en municipio distinto del lugar de trabajo habitual y del que constituya la residencia del perceptor, las siguientes:

- Egonaldi gastuengatik, egiaztatzen diren zenbatekoak.

- Mantenu gastuengatik, eguneko 52,29 euro, Espainiako lurraldearen baitako desplazamenduetarako, edo eguneko 91,35 euro, atzerriko desplazamenduetarako.

2. Hartzailearen ohiko lantokia edo bizilekua dagoen udalerritik kanpo gaua igarotzen ez denean, eguneko 26,14 edo 48,08 euro baino gehiagokoak ez diren mantenu gastuetarako diru kopuruak, Espainiako lurraldearen baitako edo atzerriko desplazamenduetan, hurrenez hurren.

Aireko konpagnietako hegaldi langileen kasuan, ohiko mantenu gastuetarako diru kopurutzat hartuko dira eguneko 36,06 euro — Espainiako lurraldearen baitako desplazamenduetarako— edo 66,11 euro —atzerriko desplazamenduetarako— baino gehiagokoak ez diren kopuruak. Egun berean egoera biak gertatzekotan, egindako hegaldi kopuru handienaren arabera dagokion kopurua aplikatuko da.

Aurreko paragrafoetan azaldutakoaren ondorioetarako, ordaintzaileak desplazamenduaren eguna eta tokia egiaztatu behar ditu, bai eta desplazamenduaren arrazoia edo zergatia ere.

b) Ondorengo kopuru hauek hartuko dira karga salbuetsitako dietatzat.

1. Lantokia atzerrian duten espainiar funtzionario publikoek Espainian egotekotan jasoko lituzketen ordainketa totalen aldean jasotzen duten soberakina, indarrean den legeria aplikatzearen eta zerbitzuagatik kalte ordainen gaineko martxoaren 4ko 236/1988 Errege Dekretuko 26.3 eta 26.4 artikuluetan xedatutako kalte ordainen ondorioz.

2. Lantokia atzerrian duten Administrazio Publikoko langileek, Espainian egotekotan soldata, hirurteko, osagarri edo pizgarriengatik jasoko lituzketen ordainketa totalen gaineko soberakinak. Ondorio horietarako, ordainketa gaitako organo aginpidedunak adostuko ditu lantokia Espainian izatekotan langile horiei legezkiekeen ordainketen erkatzeak.

3. Funtzionarioek eta beste Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileek jasotako soberakina, lantokia atzerrian duten funtzionarioen ordainketen erregimena arautzen duen urtarrilaren 13ko 6/1995 Errege Dekretuaren 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutako helburu bera duten neurrian edo ordainketen erkatzeak gainditzen ez dituen neurrian, hurrenez hurren.

Tratamendu horixe bera aplikatuko zaio lantokia atzerriko euskal ordezkartzetan duten funtzionario edo euskal Administrazio Publikoaren zerbitzuan ari diren langileek jasotzen duten soberakinari.

4. Lantokia atzerrian duten enpresetako langileek, Espainian lanean egotekotan, soldatengatik, egunsariengatik, antzinatasunagatik, aparteko ordainsariengatik (mozkinak ere), familia laguntzagatik edo beste edozein kontzeptugatik jasoko lituzketen ordainketa totalen gainetik jasotzen duten soberakina.

Letra honetan araututakoa ez da bateragarria izango foru dekretu honetako 5. artikulua arautzen duen salbuespenarekin, alegia, atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinen salbuespenarekin.

4. Aurreko ataletan zehaztutako erregimena aplikagarri izango zaie, halaber, lan-zentro mugikor edo ibiltariak dituzten enpresetarako berariaz lan egiten duten langileek jasotzen dituzten lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopuruei, baldin eta diru kopuru horiek langileak ohiko bizilekua duen udalerritik kanporako desplazamenduetarako badira.

5. Artikulu honetako karga salbuetsitako kopuruak Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako foru diputatuak berrikusi ahal izango ditu.

6. Artikulu honetan aurreikusitako mugak gainditzen dituzten lokomozio, mantenu eta egonaldi gastuetarako diru kopuruak kargapetuak egongo dira, lan etekin gisa.

B.- Arau bereziak:

1. Enpresek beren langileei ez badizkiete ordaintzen lokomozio eta mantenu gastuak, menpeko izaera duten lan harreman berezietatik eratorritako lan etekinak lortzen dituzten zergadunek beren diru sarrerak murriztu ahal izango dituzte, beraien etekin garbia zehazteko, honako kopuruetan, betiere desplazamenduak egiaztatuz:

a) Lokomozio gastuengatik:

- Por gastos de estancia, los importes que se justifiquen.

- Por gastos de manutención, 52,29 euros diarios, si corresponden a desplazamiento dentro del territorio español, o 91,35 euros diarios si corresponden a desplazamiento a territorio extranjero.

2º. Cuando no se haya pernoctado en municipio distinto del lugar de trabajo habitual y del que constituya la residencia del perceptor, las asignaciones para gastos de manutención que no excedan de 26,14 ó 48,08 euros diarios, según se trate de desplazamiento dentro del territorio español o al extranjero, respectivamente.

En el caso del personal de vuelo de las compañías aéreas, se considerarán como asignaciones para gastos normales de manutención las cuantías que no excedan de 36,06 euros diarios, si corresponden a desplazamiento dentro del territorio español, o 66,11 euros diarios si corresponden a desplazamiento a territorio extranjero. Si en un mismo día se produjeran ambas circunstancias, la cuantía aplicable será la que corresponda según el mayor número de vuelos realizados.

A los efectos indicados en los párrafos anteriores, el pagador deberá acreditar el día y lugar del desplazamiento, así como su razón o motivo.

b) Tendrán la consideración de dieta exceptuada de gravamen las siguientes cantidades:

1º. El exceso que perciban los funcionarios públicos españoles con destino en el extranjero sobre las retribuciones totales que obtendrían en el supuesto de hallarse destinados en España, como consecuencia de la aplicación de la legislación vigente y la indemnización prevista en el artículo 26.3 y 4 del Real Decreto 236/1988, de 4 de marzo, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

2º. El exceso que perciba el personal al servicio de la Administración Pública con destino en el extranjero sobre las retribuciones totales que obtendría por sueldos, trienios, complementos o incentivos, en el supuesto de hallarse destinado en España. A estos efectos, el órgano competente en materia retributiva acordará las equiparaciones retributivas que puedan corresponder a dicho personal si estuviese destinado en España.

3º. El exceso percibido por los funcionarios y el personal al servicio de otras Administraciones Públicas, en la medida que tengan la misma finalidad que los contemplados en los artículos 4, 5 y 6 del Real Decreto 6/1995, de 13 de enero, por el que se regula el régimen de retribuciones de los funcionarios destinados en el extranjero o no exceda de las equiparaciones retributivas, respectivamente.

Este mismo tratamiento les será de aplicación al exceso percibido por los funcionarios o personal laboral al servicio de la Administración pública vasca destinados en las delegaciones del País Vasco en el extranjero.

4º. El exceso que perciban los empleados de empresas, con destino en el extranjero, sobre las retribuciones totales que obtendrían por sueldos, jornales, antigüedad, pagas extraordinarias, incluso la de beneficios, ayuda familiar o cualquier otro concepto, por razón de cargo, empleo, categoría o profesión en el supuesto de hallarse destinados en España.

Lo previsto en esta letra será incompatible con la exención para los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos realizados en el extranjero a que se refiere el artículo 5 de este Decreto Foral.

4. El régimen previsto en los apartados anteriores será también aplicable a las asignaciones para gastos de locomoción, manutención y estancia que perciban los trabajadores contratados específicamente para prestar sus servicios en empresas con centros de trabajo móviles o itinerantes, siempre que aquellas asignaciones correspondan a desplazamientos a municipio distinto del que constituya la residencia habitual del trabajador.

5. Las cuantías exceptuadas de gravamen en este artículo serán susceptibles de revisión por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

6. Las asignaciones para gastos de locomoción, manutención y estancia que excedan de los límites previstos en este artículo estarán sujetas a gravamen en concepto de rendimientos del trabajo.

B.- Reglas especiales:

1. Cuando los gastos de locomoción y manutención no les sean resarcidos específicamente por las empresas a quienes presten sus servicios, los contribuyentes que obtengan rendimientos del trabajo que se deriven de relaciones laborales especiales de carácter dependiente podrán minorar sus ingresos, para la determinación de sus rendimientos netos, en las siguientes cantidades, siempre que justifiquen la realidad de sus desplazamientos:

a) Por gastos de locomoción:

-Garraio publikoa erabiltzen denean, fakturaren edo agiri balio-kide baten bitartez egiaztatzen den gastuaren zenbatekoa.

- Bestela, ibilitako kilometro bakoitzeko 0,20 euro zenbatzeak ematen duen kopurua, gehi bidesariko eta aparkalekuko gastuak (egiaztatu egin behar dira).

b) Mantenu gastuengatik, eguneko 26,14 edo 48,08 euro, desplazamendua Espainiako lurraldearen baitakoa edo atzerriakoa den kontuan izanda.

Ondorio horietarako, egonaldi gastuak enpresak ordaindu behar ditu beti, eta artikulua honetako A) letrako 3. zenbakiko a) letran xedatutakoaren arabera arautuko dira.

2. Karga salbuetsia izango dute lanpostua beste udalerrira eramateagatik zergadunari ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin lekualdatzeak bizileku-aldaketa eskatzen badu, eta bakarrik zergadunari eta haren familiari lekualdatzarekin sortutako lokomozio eta mantenu gastuak eta altzariak eta tresnak lekualdatzeko gastuak badira.

3. Karga salbuetsia izango dute hauteskunde mahaietako kideek jasotako kopuruak, legeria aplikagarrian xedatutakoaren arabera.

7. artikulua.- Denborari dagokionez erabat irregularki lortutako lan etekinak, modu zatikatuan jasotako etekinak, Zergaren Foru Arauko 16.2.a artikuluan aipatzen diren sortzeko epea eta zenbatekoa zehaztea.

1. Foru Arauko 16.2.a artikuluan onartutako %70eko integrazioa aplikatzearen ondorioetarako, honako hauek baino ez dira jotzen denborari dagokionez erabat irregularki lortutako lan etekintzat, zergaldi berari egotzen zaizkienean:

a) Enpresak beste lantoki batera joateagatik langileei ordaindutako diru kopuruak, foru dekretu honetako 6. artikuluan onartutako zenbatekoak gainditzen dituzten diru kopuruak, hain zuzen.

b) Gizarte Segurantzako edo Klase Pasiboen erregimen publikoetatik ondorioztatutako kalte-ordainak, eta umezurutzen ikastetxeek edo antzeko erakundeek ordaindutako prestazioak, baliaezintasun gabeko lesioetan.

c) Baliaezintasun gabeko lesioengatik edo edozein graduko ezintasun iraunkorragatik, enpresek eta erakunde publikoek ordaindutako prestazioak.

d) Langileen edo funtzionarioen heriotzagatik prestazioak (nahiz publikoak, nahiz umezurutzen ikastetxeek eta antzeko erakundeek, enpresek eta erakunde publikoek ematen dituztenak), edo ehorzketagatik edo lur emateagatik gastuak, baldin zergaren foru arauko 9. w) artikuluan ezarritako muga gainditzen badute.

e) Soldata-osagarriak, pentsioak edo mugarik gabeko urterokoak konpentsatzeko edo ordaintzeko emandako diru kopuruak, edo lan baldintzak aldatzeagatik emandakoak.

f) Lan harremana elkar adostuta eteteagatik enpresak langileei ordaindutako diru kopuruak.

g) Zerga honetan salbuespenik ez duten literatura, arte edo zientzia sariak. Ondorio horietarako, ez dira saritzat jotzen jabetza intelektualaren edo industrialaren edo horien ordezkotako jabetzaren esku-bideak lagatzeagatik lortutako kontraprestazio ekonomikoak.

2. Bi urte baino gehiagoko epean lortutako lan etekinak modu zatikatuan jasotzen badira, Zergaren Foru Arauko 16.2.a) lehen paragrafoan jasotako %70eko edo %60ko integrazioak baino ez dira aplikatuko, hau da, lan etekinak sortzeko behar izan diren urte kopuruak (datatik datara arte zenbatuta) zatikatze zergaldien kopuruaz zati-tzean lortutako zatidura bi urte baino gehiagokoa bada %70 aplikatuko da eta bost urte baino gehiagokoa bada, berriz, %60.

3. Zergaren Foru Arauko 16.2.a) artikuluan onartutako integrazioa ehunekoan aplikazioaren ondorioetarako, honako hau jotzen da bi urte edo bost urte baino gehiagoko epean sortutako lan etekintzat eta aldizka edo behin eta berriz sortutako lan etekintzat: akzioak edo partaidetzak erosteko eskubidea langileei ematearen ondorioz lortzen den lan etekina, baldin eta eskubide hori, hurrenez hurren eta emakida egunetik kontatuta, bi edo bost urte igaro ondoren gauzatzeko bada eta, gainera, akzio edo partaidetza horiek urtero ematen ez badira.

4. Sortzealdia bi urte baino gehiagokoa dela ziurtatu bada, baina ezin bada zehaztasunez kalkulatu, sortzealdia hiru urtekoa dela joko da.

- Cuando se utilicen medios de transporte público, el importe del gasto que se justifique mediante factura o documento equivalente.

- En otro caso, la cantidad que resulte de computar 0,20 euros por kilómetro recorrido, más los gastos, que se justifiquen, de peaje y aparcamiento.

b) Por gastos de manutención, los importes de 26,14 ó 48,08 euros diarios, según se trate de desplazamiento dentro del territorio español o al extranjero.

A estos efectos, los gastos de estancia deberán estar en todo caso resarcidos por la empresa y se registrarán por lo previsto en la letra a) del número 3 de la letra A) de este artículo.

2. Estarán exceptuadas de gravamen las cantidades que se abonen al contribuyente con motivo del traslado de puesto de trabajo a municipio distinto, siempre que dicho traslado exija el cambio de residencia y correspondan, exclusivamente, a gastos de locomoción y manutención del contribuyente y de sus familiares durante el traslado y a gastos de traslado de su mobiliario y enseres.

3. Estarán exceptuadas de gravamen las cantidades percibidas por los miembros de las mesas electorales, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación aplicable.

Artículo 7.- Rendimientos de trabajo obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo, rendimientos percibidos de forma fraccionada, determinación del periodo de generación y de la cantidad a que se refiere el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto.

1. A efectos de la aplicación del porcentaje de integración del 70% previsto en el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto, se consideran rendimientos del trabajo obtenidos de forma notoriamente irregular en el tiempo, exclusivamente, los siguientes, cuando se imputen en un único periodo impositivo:

a) Las cantidades satisfechas por la empresa a los empleados con motivo del traslado a otro centro de trabajo que excedan de los importes previstos en el artículo 6 de este Decreto Foral.

b) Las indemnizaciones derivadas de los regímenes públicos de Seguridad Social o Clases Pasivas, así como las prestaciones satisfechas por Colegios de Huérfanos e Instituciones similares, en los supuestos de lesiones no invalidantes.

c) Las prestaciones satisfechas por lesiones no invalidantes o incapacidad permanente, en cualquiera de sus grados, por empresas y por Entes Públicos.

d) Las prestaciones por fallecimiento y los gastos por sepelio o entierro que excedan del límite exento de acuerdo con el artículo 9.w) de la Norma Foral del Impuesto, de trabajadores o funcionarios, tanto las de carácter público como las satisfechas por Colegios de Huérfanos e instituciones similares, empresas y por Entes Públicos.

e) Las cantidades satisfechas en compensación o reparación de complementos salariales, pensiones o anualidades de duración indefinida o por la modificación de las condiciones de trabajo.

f) Las cantidades satisfechas por la empresa a los trabajadores por la resolución de mutuo acuerdo de la relación laboral.

g) Los premios literarios, artísticos o científicos que no gocen de exención en este Impuesto. No se consideran premios, a estos efectos, las contraprestaciones económicas derivadas de la cesión de derechos de propiedad intelectual o industrial o que sustituyan a éstas.

2. Cuando los rendimientos del trabajo con un periodo de generación superior a dos años se perciban de forma fraccionada, sólo serán aplicables los porcentajes de integración del 70% o del 60% contenidos en el artículo 16.2.a), párrafo primero de la Norma Foral del Impuesto, en caso de que el cociente resultante de dividir el número de años de generación, computados de fecha a fecha, entre el número de periodos impositivos de fraccionamiento, sea superior a dos o a cinco, respectivamente.

3. A efectos de la aplicación de los porcentajes de integración previstos en el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto, se considerará rendimiento del trabajo con periodo de generación superior a dos o a cinco años y que no se obtiene de forma periódica o recurrente, el derivado de la concesión del derecho de opción de compra sobre acciones o participaciones a los trabajadores, cuando sólo pueda ejercitarse transcurridos, respectivamente, más de dos o cinco años contados desde la fecha de su concesión, si, además, no se conceden anualmente.

4. Cuando conste que el periodo de generación sea superior a 2 años pero no sea posible determinar exactamente el referido periodo, se considerará que el mismo es de 3 años.

5. Zergaren Foru Arauko 16.2.a) artikuluan onartutako integrazio ehunekoak ez zaizkie aplikatuko lanetik botatzeagatik edo lana uzteagatik jasotako kalte ordainen zenbatekoei, zerga honetan salbuesita dauden zenbatekoak gainditzen dituztenean, eta errenta gisa jasotzen direnean.

6. Zergaren Foru Arauko 16.2.a) artikuluan aipatzen den zenbatekoa 18.030,16 eurotan finkatu da. Zenbateko hori lan etekina sortzeko behar izan diren urte kopuruaz biderkatu ondoren, lan etekinaren zenbateko jakin bat lortuko da. Emaitza horri aplikatuko zaizkio, hain zuzen, Zergaren Foru Arauko 16. artikuluko 2. idatz zatiko a) letran aipatzen diren ehunekoak.

8. artikulua.- Zenbait lan etekini aplika dakizkien integrazio ehunekoak.

1. Zergaren Foru Arauko 16. 2. artikuluko b), c) eta d) letretan onartutako integrazio ehunekoak prestazioei aplikatuko zaizkie kapital moduan eta ordainketa bakarrean.

Prestazio mistoei dagokienez, hau da, edozein erako errentak eta kobratze bakarra (kapital gisa) konbinatzen direnean, aipatutako ehunekoak kapital gisa kobratutako zenbatekoei bakarrik aplikatuko zaizkio. Eta zehatz-mehatz, prestazioak errenta gisa kobratze-ari ekin ondoren errenta hori aldezturik berreskuratuz gero, dagozkion integrazio ehunekoak aplikatuko zaizkio lortutako etekinari, errenta eratzean prima bakoitzak duen antzinatasonaren arabera dagozkion integrazio ehunekoak, hain zuzen.

2. Zergaren Foru Arauko 16.2 artikuluko c) eta d) letretan onartutako %25eko ehunekoak aplikatzearen ondorioetarako, kontratuak dirauen bitartean ordaindutako primak aldizkakotasun eta erregularitasun nahikoa duela pentsatu beharko da baldin eta, lehen prima ordaindu zenetik hamabi urte baino gehiago pasatu ondoren, primen batez besteko iraunaldia sei urte baino gehiagokoa bada.

Primen batez besteko iraunaldia honela kalkulatu da: lehenik prima guztien zenbatekoak batu, gero zenbateko hori primak iraun duten urte kopuruaz biderkatu, eta azkenik ordaindutako prima guztien zenbatekoaz zatitu.

3. Zergaren Foru Arauko 16.2.d) artikuluan onartutako %35eko integrazioa honako zenbatekoei aplikatuko zaie: erabateko baliaezintasunagatik eta edozein lanetarako baliaezintasun iraunkorreragatik eta baliaezintasun handiagatik jasotako kalte ordainei, betiere pensio plan eta funtsak arautzen dituen araudian onartutako baldizetan.

4. Baldin eta Zergaren Foru Arauko 15.5.a) 5. artikuluan onartutako bizi aseguruaren kontratuen ondorioz, prestazioak kapital moduan kobratzen badira, eta bizi aseguru horietan aldizkako primak edo prima bereziak badira, honela egingo da prima bakoitzari dagokion etekin osoa zehazteko: etekin osoa, ondoren aipatutako den zatiduraz zatitzean lortzen den haztapen koefizienteaz biderkatuko da.

-Zenbakitzaillean hauxe jarriko da: dagokion prima eta prima ordaindu zenetik prestazioak kobratu arte igarotako urte kopuruak biderkatzean lortzen den emaitza.

-Izendatzailean hauxe jarriko da: prima bakoitza eta prima ordaindu zenetik prestazioak kobratu arte igarotako urte kopuruak biderkatzean lortzen diren emaitzen batura.

5. Zergaren Foru Arauko 16.2. artikuluan onartutakoaren ondorioetarako, erakunde aseguratzailleak ordaindutako prima bakoitzari dagokion ordaindutako zatia xehakatuko du.

II. KAPITULUA

EKONOMIA JARDUERETAKO ETEKINAK

1. ATALA

ARAU OROKORRAK

9. artikulua.- Ekonomia jarduera bati lotutako ondare elementuak.

1. Honako hauek jotzen dira zergadunak egindako ekonomia jarduera bati lotutako ondare elementutzat:

a) Zergadunaren jarduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

b) Jardueran lan egiten duten langileentzako ekonomia, gizarte eta kultura zerbitzuertarako ondasunak. Hauek, berriz, ez dira zergadunaren jarduera bati lotutako ondaretzat hartuko: aisialdirako eta jolasteko erabiltzen diren ondasunak edo, oro har, ekonomia jardueraren jabeak beretzat erabiltzen dituen ondasunak.

5. En ningún caso se aplicarán los porcentajes de integración previstos en el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto a los importes de las indemnizaciones por despido o cese que superen las cuantías que gocen de exención en este Impuesto, que sean percibidas en forma de renta.

6. La cantidad a que se refiere el artículo 16.2.a) de la Norma Foral del Impuesto, se fija en 18.030,36 euros. Ésta será la cantidad que, multiplicada por el número de años de generación del rendimiento, origina la cuantía del rendimiento sobre la que se aplican los porcentajes a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 16 de la Norma Foral del Impuesto.

Artículo 8.- Porcentajes de integración aplicables a determinados rendimientos del trabajo.

1. Los porcentajes de integración previstos en el artículo 16.2, letras b), c) y d) de la Norma Foral del Impuesto, resultarán aplicables a las prestaciones en forma de capital consistentes en una percepción de pago único.

En el caso de prestaciones mixtas, que combinen rentas de cualquier tipo con un único cobro en forma de capital, los porcentajes referidos sólo resultarán aplicables al cobro efectuado en forma de capital. En particular, cuando una vez comenzado el cobro de las prestaciones en forma de renta se recupere la renta anticipadamente, el rendimiento obtenido será objeto de aplicación de los porcentajes de integración que correspondan en función de la antigüedad que tuviera cada prima en el momento de la constitución de la renta.

2. A efectos de la aplicación del porcentaje del 25% previsto en el artículo 16.2, letras c) y d) de la Norma Foral del Impuesto, se entenderá que las primas satisfechas a lo largo de la duración del contrato guardan una periodicidad y regularidad suficientes cuando, habiendo transcurrido más de doce años desde el pago de la primera prima, el período medio de permanencia de las primas haya sido superior a seis años.

El período medio de permanencia de las primas será el resultado de calcular el sumatorio de las primas multiplicadas por su número de años de permanencia y dividirlo entre la suma total de las primas satisfechas.

3. El porcentaje de integración del 35%, establecido en el artículo 16.2.d) de la Norma Foral del Impuesto, resultará aplicable a las indemnizaciones por invalidez absoluta y permanente para todo trabajo y por gran invalidez, en ambos casos en los términos establecidos por la normativa reguladora de los planes y fondos de pensiones.

4. En el caso de cobro de prestaciones en forma de capital derivadas de los contratos de seguro de vida contemplados en el artículo 15.5.a).5ª de la Norma Foral del Impuesto, cuando los mismos tengan primas periódicas o extraordinarias, a efectos de determinar la parte del rendimiento total obtenido que corresponde a cada prima, se multiplicará dicho rendimiento total por el coeficiente de ponderación que resulte del siguiente cociente:

- En el numerador, el resultado de multiplicar la prima correspondiente por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

- En el denominador, la suma de los productos resultantes de multiplicar cada prima por el número de años transcurridos desde que fue satisfecha hasta el cobro de la percepción.

5. A efectos de lo previsto en el artículo 16.2 de la Norma Foral del Impuesto, la entidad aseguradora desglosará la parte de las cantidades satisfechas que corresponda a cada una de las primas pagadas.

CAPÍTULO II

RENDIMIENTOS DE LAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS

SECCIÓN 1ª

NORMAS GENERALES

Artículo 9.- Elementos patrimoniales afectos a una actividad económica.

1. Se considerarán elementos patrimoniales afectos a una actividad económica desarrollada por el contribuyente:

a) Los bienes inmuebles en los que se desarrolle la actividad del contribuyente.

b) Los bienes destinados a los servicios económicos y socio-culturales del personal al servicio de la actividad, no considerándose afectos los bienes de esparcimiento y recreo o, en general, de uso particular del titular de la actividad económica.

c) Etekinak lortzeko behar-beharrezko den beste edozein ondare elementu. Erakunde bateko funtsa propioetan parte hartzen duten aktiboak eta hirugarren batzuei utzitako kapitala ez dira zergadunaren jarduera bati lotutako ondare elementutzat hartuko.

2. Hauek bakarrik joko dira ekonomia jarduera bati lotutako ondare elementutzat: zergadunak jardueraren helburuak gauzatzeko erabiltzen dituen ondareak.

Hauek, berriz, ez dira jarduera bati lotutako ondaretzat hartuko:

1. Aldi berean, ekonomia jardueretarako eta behar pribatuetarako erabiltzen diren ondasunak, artikuluko honetako 4. idatz zatian onartutakoari jarraituz, ondasunak behar pribatuetarako erabiltzeak garrantzi gutxi duenean eta osagarri denean salbu.

2. Zergadunaren ondasunak izanda ere, berak nahitaez eraman beharreko kontabilitatean edo erregistro ofizialetan agertzen ez diren ondasunak, kontrako frogarik ezean.

3. Ondare elementuak jardueraren helburua partzialki gauzatzeko bakarrik erabiltzen direnean, jarduera egiteko erabiltzen den ondare elementuaren zatia bakarrik hartuko da jarduera horri lotutako ondaretzat. Beraz, honako hauek bakarrik hartuko dira jarduerari lotutako ondaretzat: aprobetxamendu bereizia eta beste zatietatik banandua egiteko aukera ematen duten ondare elementuen zatia. Ondare elementu banaezinak ez dira jarduera bati lotutako ondare partzialtzat hartuko.

4. Modu osagarri eta benetan garrantzirik gabeko norbere beharretarako erabiltzat hartuko dira, jarduera ekonomikoaren garapenerako jasotako eta erabilitako ibilgetuaren ondasunak. Hauek zergadunaren erabilpen pertsonalerako izango dira, lan-egun edo orduetan, eta bitartean, aipatu jardueraren ekital-dia eten egingo da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko turismo automobilerak eta haien erremolkeei, ez eta ziklomotore, motozikleta, kirol edo aisialdirako aireontzi edo ontziei ere, baina honako hauei ez zaie aplikatuko:

a) Salgaien garraiorako ibilgailu mistoei.

